


# Mugaz gaindiko Uda Ikastaroak

## Cursos de Verano transfronterizos

### Cours d'Été transfrontaliers



# Araudia

# 2024

# AURKIBIDEA

1.	<a href="#">Mugaz gairdiko uda ikastaroetarako proposamenak</a>	2
2.	<a href="#">Gaia</a>	2
3.	<a href="#">Ikastaroen ezaugarriak</a>	3
4.	<a href="#">Proposamenak bidaltzea</a>	5
5.	<a href="#">Proposamenak ebaluatzea</a>	6
6.	<a href="#">Balio akademikoa</a>	8
7.	<a href="#">Antolakuntzaren egutegia</a>	8
8.	<a href="#">Ikasleengandik datozen proposamenak sustatzea</a>	10
9.	<a href="#">Kontsiderazio orokorrak</a>	10
10.	<a href="#">Onartutako ikastaroen edizioa</a>	11

# 1. Mugaz gairdiko uda ikastaroetarako proposamenak

**Proposamenek, gutxienez, Mugaz gairdiko eskualdeetako bi erakunde publiko edo pribaturen partaidetza izan beharko dute, eta horietako bik estatu desberdinetakoak izan beharko dute.**

Ondorio horietarako, partaidetza da mugaz gairdiko Udako Ikastaroarekiko konpromiso oro, esaterako, antolaketa, ponentziak, finantzaketa eta abar.

1. adibidea: *Bizkaiko Golkoan dauden mikro plastikoei buruzko udako ikastaroa*, Bartzelonako Unibertsitateko zuzendariak antolatua, NUPeko hizlari baten partaidetzarekin eta Baionako enpresa baten finantzaketarekin.

2. adibidea: *Adimen artifiziala mugaz gairdiko zerbitzuen kudeaketan aplikatzeari buruzko Udako Ikastaroa*, Elkargoak antolatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EHUko irakasle baten partaidetzarekin.

Deialdian, aintzat hartuko da mugaz gairdiko bazkideekin harremanetan jartzeko interes-adierazpenak bidaltzeko aukera, mugaz gairdiko udako ikastaroak egiteari begira. Horretarako, deialdian, udako ikastaroetarako parte-hartzaileak biltzeko interes-adierazpenen atal bat sartuko da. Adierazpenotan, alderdi hauek zehaztu beharko dira: proposamena egin duten pertsonak eta haien afiliazio instituzionala, ikastaroan landuko den gaia eta helburuen laburpena.

## 2. Gaia

Gaiak interes sozial edo zientifikoko edozein motatako kontuak jorratu ditzake, baina mugaz gairdiko ikuspegia txertatu behar du zeharkako elementu gisa.

Hona hemen iradokitako gaietako batzuk:

- = arkitektura eta hirigintza
- kultura eta artea
- hezkuntza
- osasuna
- ekonomia
- nutrizioa eta gastronomia
- zientzia eta teknologia
- klima-aldaketa
- GJH

## **3. Ikastaroen ezaugarriak**

### **3.1.- Xede-publikoa:**

Saioak publiko orokorrarentzat izan daitezke, baina baita akademikoentzat, ikasleentzat eta profesionalentzat ere.

Bereziki baloratuko da publiko gazteenaren partaidetza. Gazteen parte-hartzea sustatzeko eta haien intereseko gaietara hurbiltzeko, proposamenek prestakuntzan doktoreak, profesionalak edo gizarte-eragile gazteak sartzeko aukera kontuan hartzea iradokitzen da.

### **3.2.- Data:**

2024an, uztailaren 15etik 19rako astean gauzatuko da programa.

Justifikatutako arrazoiak direla medio, proposatutako ikastaroa ezin bada aurreikusitako egunetan egin, egun horien inguruan egingo diren jarduerak proposatu ahal izango dira, eta programa honen barruan sartuko dira.

### **3.3.- Tokia:**

Egoitza nagusia Baionako Cité des Arts izango da (lehenengo bi edizioetan bezala), baina beste toki batzuk proposatu ahal izango dira.

### **3.4.- Iraupena:**

Kontuan hartuta bigarren edizioaren emaitza, egun oso bateko ikastaroak sustatuko dira.

Bi eguneko ikastaroak egitea azertu ahal izango da, beharrezkoa dela justifikatzen bada.

### **3.5.- Metodologiak:**

Partaidetzako metodologiak sustatuko dira, eta amaierako mahai-inguru bat izango dute, gutxienez.

### **3.6.- Formatua:**

Ikastaroak aurrez aurre eman beharko dira, baina aukera egongo da aurrez aurre zein online parte hartzeko.

## 3.7.- Hizkuntza:

Ikastaroak Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeko edozein hizkuntza ofizialetan egin ahalko dira.

Aldi bereko itzulpena ikastaro bakoitzaren premietara egokituko da.

Kasu bakoitzaren arabera erabakiko da itzulpena beharrezkoa den ala ez, kontuan hartuta zer premia dituen proposamenak, zein publikorentzat den eta zer aurrekontu dagoen erabilgarri.

## 3.8.- Programa antolatzeke gomendioak

<b>Orduetgia</b>	Egun batekoa bada: 9:30 – 11:00 11:00 – 11:30 kaferako atsedena 11:00 – 13:00 13:00 – 14:00 bazkaltzeko atsedena 14:00 – 16:00  Bi eguneko bada, hobe da bi goizetan egitea. Zuzenean online konektatzen den Latinoamerikako publikoa izanez gero, bi arratsalde izan daitezke, arratsaldeko orduetgia egokituta.	Kafea eta bazkaria Cité des Arts gunean zerbitzatuko dira, eta egun bereko ikastaroetako parte-hartzaileak aldi berean elkartzea bultzatuko da, sareak sustatzeko. Garrantzitsua da orduetgia errespetatzea, halako guneak sortu ahal izateko.
<b>Hitzaldien iraupena</b>	45'	35' azalpenak eta 10' galderek/eztabaidak
<b>Mahai-ingurua edo partaidetzako jarduera</b>	Mahai-inguruetarako eta hizlariak eta/edo parte-hartzaileak dituzten partaidetzako beste jarduera batzuetarako guneak bermatu behar dira.	
<b>Zuzendariak edo kontalariak lagunduko du</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Sarrerako hitzaldia</li> <li>o Hizlariak aurkeztea</li> <li>o Eztabaidak moderatzea</li> <li>o Laburpena, saio bakoitzaren amaieran</li> </ul>	

## 3.9. Finantzatutako gastuak

Hautatutako proposamenek gastu hauek izango dituzte estalita, 3000ko mugaren barruan

- Jardueraren antolamendua eta hedapena.
- Egoitza, zerbitzu teknikoa eta arreta.
- Aldi bereko itzulpena, proposamenak Ebaluazio Batzordeak hala erabakitzen badu.
- Hitzaldien eta mahai-inguruaren ordainsariak.
- Joan-etorriak.
- Ostatua.
- Kafea eta otorduak.

Batzorde akademikoak baloratuko dituen arrazoi justifikatuak direla medio, zenbateko hori handitu egin daiteke.

Ondorengo 5. puntuari ezartzen den moduan, positiboki baloratuko da proposamenek programan jarduera gehiago egin ahal izateko ekar dezaketen finantzaketa espezifikoa.

Proposamena onartu ondoren, jardueraren aurrekontua egingo da finantzatutako gastuak kontuan hartuta, eta Mugaz Gairdiko Udako Ikastaroaren zuzendaritzarekin adostuko da.

## 4. Proposamenak bidaltzea

**Deialdia 2023ko azaro osoan egongo da zabalik. Ez da onartuko epe kanpo aurkeztutako proposamenik, Antolakuntza Batzordearen arabera programak indargarri bat behar badu eta epea amaitu ondoren *ad hoc* proposamenak eskatzen baditu izan ezik.**

Proposamenak **UIK Fundazioaren plataformaren bidez** bidali behar dira, **hark jarduten baitu programaren idazkaritza teknikoan. ESTEKA**

Zuzendari bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du.

Jarduera bakoitzak zuzendari bat izango du. Salbuespen gisa eta justifikatutako arrazoiak badaude soilik onartuko da baterako zuzendaritza bat.

Jarduerarekin lotutako kudeatzailea, zeina zuzendaria edo beste norbait izan daitekeen, erakundearekiko solaskide bakarra izango da, jarduera kudeatzeko orduan.

**Proposamena ebaluatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da izartxoaz markatutako itemak betetzea. Eskatutako gutxieneko informazioa jasotzen ez duten proposamenak ez dira ebaluatzen bidaliko.**

## 5. Proposamenak ebaluatzea

Antolakuntza Batzordea arduratuko da jasotako proposamenak ebaluatzeaz.

Proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

	<b>Egoera</b>	<b>Balorazioa</b>	<b>Puntuak</b>
<b>Ikastaroan nahastuta dauden eskualdeak</b>	Estatu bakoitzeko gutxienez 2 eskualde	Beste eskualde bateko ordezkari batek parte hartzen duen bakoitzean puntu bat gehituko da.	0-2
<b>Ikastaroan parte hartu duten unibertsitateen kopurua</b>	Gutxienez hainbat eskualdetakoak diren 2 unibertsitate	Puntu bat gehituko da beste unibertsitateko ordezkari batek parte hartzen duen bakoitzeko.	0-2
<b>Proiektuaren kalitatea</b>	Proposatutako hizlariak konfirmatuta daudela ulertuko da, besterik adierazi ezean. Programaren gehiengoak berretsita egon beharko du.	Hizlarien kalitatea, haien curriculumaren eta gaierekiko koherentziaren arabera  Programaren edukia  Udako ikastaroaren helburuak	0-3
<b>Ikasleria</b>			
<b>Inpaktua eta gauzatzeko aukerak</b>	Fitxan matrikulatuen gutxi gorabeherako kopuruaren itema gehituko da.	Intereseko eta gaurkotasuneko gaia  Gaur egun lurraldean duen inpaktua  Etorkizuneko inpaktua, etorkizuneko lankidetzak edo ikerketa-sareak detektatzeari dagokionez	0-3
<b>Bideragarritasun finantzarioa / bazkide babesleak</b>	Ikastaroaren aurrekontuak	Ikerketa-proiektuen, dirulaguntza publikoen, enpresen laguntzen eta abarren finantzaketa dakarten lankidetzak-ikastaroak baloratuko dira.	0-2
<b>GEHIENEZKO PUNTUAZIOA</b>			12

## 6. Balio akademikoa

Hitzarmen multilateralaren klausula batean, Partzuergoan parte hartzen duten unibertsitateek eta Doktorego Eskolek graduako eta graduondoko barne curriculumaren ondorioetarako atzerriko ikasleentzat nazioarteko ECTS kredituak onartzeko duten asmoa jasoko da.

Era berean, hitzarmen multilateralaren beste klausula batean, Partzuergoan parte hartzen duten unibertsitateek bizialdi osoko prestakuntza-balioa duten mikro egiaztagirien bidezko ziurtapen-sistema bat egiteko duten asmoa jasoko da.

## 7. 2024ko antolakuntzaren egutegia\*

Abenduaren 11tik urtarrilaren 26ra	Proposamenak aurkezteko epea
Urtarrila	Onartutako jarduerak zein diren, zer formularen bidez finantzatu diren eta non eta noiz egingo diren jakinaraztea.
	Onartu ez diren proposamenen berri ematea.
Otsailak 23	Jardueraren zuzendaritzak baldintzak onartzeko epea amaitzea.
Martxoak 15	Izenburua, helburuak, laburpena, babesleak (hala badagokio) eta hizlarien behin betiko zerrenda (NAN eta posta elektronikoa barne) berresteko epea amaitzea eta programa berrestea.
Programa onartzen denetik aurrera	Zuzendaritzak aurrekontua onartu ondoren, idazkaritzak gonbidapen ofizial bat bidaliko die hizlariei.
	Jarduera bakoitzaren hedapena prestatzea: aurkezpenak grabatzea, etab.
Apirilak 18	Edizioaren aurkezpen akademikoa. Matrikula irekitzea.
Apirilaren 18tik aurrera	Hedapen-kanpaina: buletin orokorra eta ikastaroen araberakoa, eta postak sare sozialetan.
Jarduera hasi baino 20 egun lehenago	Jardueraren zuzendaritzak eta hizlariak ikasleentzako material osagarria ematea.
Jarduera hasi baino 10 egun lehenago	Hizlariak bere hitzaldian erabili beharreko dokumentazioa aurkeztea.
Uztailak 15	Asteari hasiera ematea 9:00etan, Cité des Arts gunean. Kazetariak gonbidatuko dira.
Uztailaren 15etik 19ra	Mugaz gairdiko Uda Ikastaroen astea.



Uztailak 23	Balorazioko prentsa-oharra bidaltzea.
Iraila	Edizioa baloratzeko bilera.

*\* Egutegi hau gutxi gorabeherakoa da eta aldaketak izan ditzake. Antolaketaren egutegiaren azken bertsioa hemen egongo da eskuragarri: [www.uik.eus](http://www.uik.eus)*

## 8. Ikasleengandik datozen proposamenak sustatzea

2024ko edizioak ikasleen partaidetza sustatzen jarraituko du, baita ikastaroetarako proposamenak aurkezteko ekimenari dagokionez ere. Partzuergoko unibertsitateek ahalegin berezia egingo dute ikasle-elkarteen eta ikasleek zuzendutako unibertsitate-proiektuen interesa pizteko, proposamenak egin ditzaten. 2024ko edizioan, ikasleengandik datozen proposamenak aintzat hartzea positiboki baloratuko da edizioa osatuko duten ikastaroen hautaketa egiteko orduan.

## 9. Kontsiderazio orokorrak

### 9.1. Datu pertsonalen babesa eta jabetza intelektuala

Bildutako datu pertsonalak, irudiak eta ahotsa barne, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren (UIK) erantzukizunpeko fitxategi eta tratamenduetan sartuko dira, hark jarduten baitu proiektuaren idazkaritza teknikoan. Datuak tratatzeko legitimazioa zerbitzuak emateko kontratu bat ezarri eta gauzatzea da, eta kontratu horren alderdiak interesduna eta fundazioa dira.

Datuok kontabilitate- eta administrazio-arloko kudeaketa egiteko, ikastaro guztiak artxibatzeko eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan erabiltzeko biltzen dira. Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei laga edo jakinaraziko, legez aurreikusitako kasuetan edo ikastaroaren xedea behar bezala garatzeko behar denean izan ezik. Datuak legez aurreikusitako epeetan gordeko dira.

Interesdunek aukera izango dute datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, eraman eta haien tratamendua mugatzeko, baita emandako baimena kentzeko ere. Horretarako, NANaren kopia bat bidali beharko diote datuak babesteko ordezkariari, fundazioaren egoitzara. Haien eskubideek ez badute arreta egokia jaso, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatza aurkituko duzu [www.uik.eus](http://www.uik.eus) webguneko «pribatutasun adierazpena» atalean.

Jarduerak hedatzeko, UIK fundazioak ezarritako irudi eta plataformak soilik erabiliko dira. Gauzatutako prestakuntza-ekintzen irudiak deskargatu eta beste arlo batzuetan erabiltzeko, UIK fundazioaren berriarazko baimena eskatu eta lortu beharko da. Irudiak hartu, deskargatu edo UIK fundazioak bere xedeetarako eta beste xede batzuetarako ezarritakoez bestelako plataformetan banatzen dituztenak izango dira datu pertsonalen tratamendu horien erantzuleak, eraginpeko pertsonen aurrean.

## 9.2. Jabetza intelektuala

Hizlariak bermatzen du hitzaldirako erabiliko duen materialaren jabetza intelektualeko eskubideen titularra dela eta ez duela inolako kargarik.

Hizlariak baimena ematen dio UIK fundazioari edukiak zabaldu eta argitaratzeko.

## 9.3. Irudia eta ahotsa lagatzea

Online ematen ez diren aurrez aurreko jarduerak ez dira grabatzen, berez. UIK fundazioarekin adostuz gero soilik grabatuko dira.

Jarduera grabatzeko eskatuz gero, hizlariak edo zuzendariak berariazko baimena emango dio UIK fundazioari emango den ikastaroa eta, zehazki, bere irudia eta ahotsa ikus-entzunezko edozein euskarritan jartzeko, jarduera erreproduzitu, banatu eta/edo jakinarazte aldera.

Baimen hori doan ematen da, eta barne hartzen ditu edozein bitarteko edo euskarri erabiliz (hedabideak eta sare sozialak barne) jasotako materialak edo haren zatiek izan ditzaketan ikerketa- edo irakaskuntza-erabilera guztiak.

Hemen emandako baimenak irakaskuntzan edo ikerketan erabiltzeko xedea izango du, eta ez du inolako denbora-mugarik izango berori eman eta ustiatzeari dagokienez. Era berean, hemen emandako baimena ez dago eremu geografiko jakin baten mende edo hartara mugatuta.

## 9.4. Zuzeneko saio eta/edo emankizunak

Zuzeneko saioaren edo emanaldiaren Zuzendaritzak eta/edo hizlariak grabatutako eta/edo bideokonferentzia-plataformen bidez argitaratutako saioen berri emango diete ikasleei, hala badagokio. Haien intimitatea gordetze aldera, ikasleek ez badute nahi beren irudia edo ahotsa grabatzerik, hizlariak bere ekipoko kamera eta/edo mikrofonoa desaktibatu beharko du.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Lege Organikoari, 670/2016 (EB) Erregelamenduari eta irudiak erabiltzeari buruz indarrean dagoen gainerako legeriari jarraikiz, hizlariak, ikasleek eta gainerako parte-hartzaileek baimena ematen diote UIK Fundazioari ekitaldian grabatutako beren irudia edo ahotsa berariaz eta ezagutzeko moduan agertzen duten irudi, bideo eta/edo audioen artxibo bat izateko, eta ikus-entzunezko horiek edozein komunikabidetan argitaratzeko. Ez badute beren irudia edo ahotsa grabatzerik nahi, beren ekipoko kamera eta/edo mikrofonoa desaktibatu beharko dute.

## 9.5. ZOOM plataforma digitaleko saioak

Kontuan hartuta prestakuntza-ekintza UIK fundazioarenaz bestelako plataforma batzuetan egiten dela, esaterako, ZOOMen bidez, parte-hartzaileek plataforma horien pribatutasun-baldintzak eta - politikak onartu behar dituzte.

UIK Fundazioak ez die parte-hartzaileen daturik eman edo komunikatuko plataforma horiei; hala, interesdunek beren kabuz eta askatasunez emango dute baimena, plataforman sartu eta erregistratzen direnean.

## **9.6. Ikastaroetako grabazioen erabilera**

Eskuragarri jarritako eduki guztiak jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideen mende daude, eta datu pertsonalak babesteko araudiak ere mugatzen ditu horien erabilera eta banaketa.

Jardueraren zuzendaritzak grabazioa eskuratzeko baimena eskatu ahalko dio UIK Fundazioari, bere artxiboan gorde, barne-kontsultak egin eta pilula laburrak sortu eta argitaratze aldera. Nolanahi ere, irabazi-asmorik gabeko dibulgazioa izan beharko du, eta UIK Fundazioaren logotipoa erantsi eta berariaz adierazi beharko du Udako Ikastaroaren edukiak direla.

Debekatuta dago eduki horiek osorik argitaratzea, eskubide horien titularrek eta UIK Fundazioak alde z aurretik eta idatziz baimenik eman ezean.

## **10. Onartutako ikastaroen edizioa**

Mugaz gairdiko Udako Ikastaroek, MSH Bordeauxekin lankidetzan, UN@ argitaletxe irekian egindako ikastaroak argitaratzeko aukera ematen dute.

**Mugaz gairdiko Udako Ikastaroetan parte hartzeak berekin dakar Araudia onartzea.**